

2008KO OTSAILAK 12

21 DE FEBRERO DE 2008

ORGANOA: UDAL BATZARRA

ORGANO: AYUNTAMIENTO PLENO

BATZARRALDIA: EZOHIZKOA

SESION: EXTRAORDINARIA

TOKIA: UDALETXEKO OSOKO BILKUREN ARETOA

LUGAR: SALON DE PLENOS DE LA CASA CONSISTORIAL

EGUNA: 2008KO OTSAILAK 12

DIA: 12 DE FEBRERO DE 2008

HASIERA ORDUA: 19:00

HORA DE COMIENZO: 19:00

LEHENDAKARIA: Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA.

PRESIDE

ZINEGOTZIAK: BERTARATUTAKOAK

CONCEJALES: ASISTEN

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA
Lide AMILIBIA BERGARETXE
Manuel ZUBIA ARTABE
Andoni ETXANIZ OSA
Miren Nerea EPELDE AZKUE
Joseba Josu AZPIAZU AZKARRAGA
Pilar ETXABE IRIONDO
Emiliano CABAÑAS GONZALEZ
Paloma HEREDERO NEGREDO

EZ DIRENAK BERTARATU:

NO ASISTEN:

Unai MANZISIDOR ANDONEGI
Cristina FORCADA UNANUE.
Xabier OLAIZOLA ANTIA.

IDAZKARIA: Miren ETXEZARRETA GARMENDIA
SECRETARIO

Herritarrak agertu dira.

Asiste público.

Alkate jaunak bilera eratutzat
ematen du.

Se da por constituida la
sesión por el Alcalde-Presidente.

GAI BAKARRA:

1.- MOZIOA: ANV, ZUMAIAKO UDALTALDEAK AURKEZTUA.-

PUNTO UNICO:

1.- MOCION: ANV, PRESENTADA POR EL GRUPO MUNICIPAL DE ZUMAIA.-

ALKATE-LEHENDAKARIA: Arratsaldeon, eta eskerrikasko honera azaldu zaretzen guztioi.

Gaur otsailak, 12, asteartea ez ohizko batzarraldiari ekingo diogu. Gai bakarra gaur eztabaidatzeko, mozio bat EAE-ANV-ek Zumaiako Udal taldeak aurkeztua. Baino aipatu beharra dago, mozio hori, bozeramaileen batzordean bai ANV-k eta EA-k adostutako beste mozio batez ordezkatu izan dela. Horrela esplikatua izan da bozeramaileen batzordean eta EAE-ANV taldeak aurkeztu duenez berezko mozioa, beste mozio berri honen irakurketa Andoni, zuk egin ezazu, nahi baldin baduzu.

ANDONI ETXANIZ OSA JNA: EAE-ANVren ilegalizazioa dela eta mozioa.

1.- Udal honek oso larritzat jotzen du espainiar estatuak EAE-ANV indar politikoaren suspentsioa erabakitzea. Erabaki hau Euskal Herriaren eskubideen aurkako eraso bortitza da eta herri sektore zabala kriminalizatzea du helburu. Erakunde politikoen ilegalizazio prozesuekiko kontrako jarrera berresten dugu eragin zuzena baitu adierazpen askatasun edota herritarren parte hartze eskubideetan.

2.- Udalerri honetako biztanleriaren herri-borondatea errespetatua izan behar du, ondorioz, hautetsi guztiek aukera izan behar dute, beren ordezkaritza politikoaren lana askatasunez eta baldintza berdintasunean egiteko. Hortaz, bere babes osoa eskaintzen die EAE-ANV udal taldeko

kideei, Udal honek eskura dituen baliabide guztiak erabiliko ditu ordezkaritza politikoaren lan hori egitea posible izan dadin.

3.- Udal honek proiektu politiko guztien bideragarritasuna aldarrikatzen du. Proiektu politiko guztiak bide demokratiko eta baketsuetatik praktikara eramateko eskubidea aldarrikatzen dugu, independentzia barne. Hori da, gainera, Euskal Herriak bizi duen gatazkari konponbidea emateko bidea, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa, Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoako herritar guztiak proiektu guztien artean erabakitzeko eskubidea errespetatuko duen marko demokratiko bat eraikitzea, hain zuzen ere.

4.-Gatazka politikoari konponbidea bilatzeko ezinbestekoa da alde guztien arteko elkarrizketa. Beraz alderdi, eragile sozial eta sindikalei elkarrizketaren bidez konponbidea eta bakea lortzeko ahaleginak biderkatzeko deia egiten diegu. Konponbiderako, guztion arteko elkarrizketak ahalbideratuko duen akordio politikoa da giltza. Akordio politikoa herritarren borondatean oinarritu behar da. Euskal Herriak hitza eta erabakia izan behar ditu edozein proiektu politikoren inposaketa baztertuz.

5. Onartutakoaren berri emango zaie herritar guztiei zein hedabideei.

Hau da Gobernu bezala aurkezten dugun mozioa eta hau da hitzegin eta bozkatu behar duguna.

ALKATE LEHENDAKARIA: Beti bezala bakoitzak duen eritziarekin, hasiko gara, EAJ-PNV.

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA ANDREA: Orain dela ordu erdi arte esku artean geneukan mozioa erabat desberdina zen, eta mozio hura gure ezezkoaren bila idatzitako mozio bat zela iruditzen zitzaigun. Alde horretatik, gure alderdiaren aurka, beste behin ere egiten zituen iruzur salaketak, desagertu egin dira eta horrek hitzegiteko beste bide bat zabaltzen digu.

Edozein modutara bozeramaileen batzordean aipatu dudan bezala zuek aurkezten duzuen testu honetan faltan botatzen dugu hasierako eta aurretiazko printzipio bat “Michel” printzipioa, edo “Michel” printzipio izenaz ezaguna izan dena eta zeurok Anoetan aldarrikatu zenuten printzipioa. Horregatik eta dagoeneko hasieran aurkeztutako mozioarekin zerikusi gutxi duen beste bat tratatzen ari garelarik, guk eskatzen duguna da

aldaketa hori eranstea testuari eta laugarrengo puntuan aurrengo esaldia ordezkaturko lukeen beste esaldi luzeagotxe hau proposatzen dugu:

“ Euskal Gatazka Politikoa soluzio bidean jarriko duten ekimenei dei egiten die Euskal Herriak biolentziaren erabilpena eta beraren erabilpen mehatxua gaitzetsita eta Euskal Herriaren etorkizuna askatasun osoz eta demokratikoki erabaki ahal izateko eskubidea errespetatuta”.

Hori da egiten dugun eskaera.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Emiliano, PSOE.

Sr. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ: Buenas tardes a todos. No cabe la menor duda de que de la primera a ésta, va como del día a la noche. No hace falta ni leerla para verlo. Pero seguimos pensando que no se ve aquí una intencionalidad de cambio bajo ningún concepto, que se sigue queriendo eludir la responsabilidad que cada uno tiene en cada uno de sus actos y parece ser que sean siempre los demás los que tienen la culpa de lo que uno hace. Y eso no es así, nunca ha sido y nunca lo será. Por mucho que intentemos dar la vuelta a ese concepto, uno es responsable de lo que hace y no el otro. Por lo tanto, si no se ve un intento de cambio, para la declaración que se pretende aquí, es muy difícil que se lleve a cabo. Porque para eso, tiene que empezar por uno mismo. El intentar digamos de alguna manera, responsabilizarse con su forma de pensar, con su forma de actuar y ver que posibilidades hay con el contrario, cuando eso no ocurre, es difícil. Entendemos que en el primer punto, hablar tiene como objetivo criminalizar. Yo creo que nadie trata de criminalizar a nadie y no soy yo quien me refiero ni nosotros como tal lo que representamos quien lleva a cabo este tipo de actuación.

En segundo, yo creo que en base a lo que he dicho anteriormente pretender que sean los demás, los que saquen el problema en el cual se ha metido uno mismo, es que no. Aquí se dice que este ayuntamiento utilizará todos los recursos a su alcance para hacer posible la realización de dicha labor de representación política. Creo que el ayuntamiento ni está para eso, ni tiene las posibilidades, ni se puede poner por encima de la Ley, ni se puede poner en contra de nada de lo que realmente tiene que ser. El Ayuntamiento no puede comprometerse a algo que no puede ejecutar. A no ser que se tenga la pretensión de ponerse por encima de la Ley, entonces, pues vale, cada uno cargue con sus consecuencias como he dicho anteriormente y me parece muy bien, uno es responsable y hace lo que hace y en paz. Pero desde luego nosotros entendemos que el ayuntamiento no lo puede hacer. Luego, pues seguimos hablando de Euskal Herria y aquí ya se mete todo lo que supone, y lo que significa esa palabra y seguimos estando,

en la Comunidad Autónoma del País Vasco, nos guste o no nos guste y está formada por Vizcaya, Alava y Gipuzkoa y nadie más, y desde luego mucho menos se va a poder comprometer el ayuntamiento a hablar en nombre de la legislación francesa o del propio Navarra que tiene su propio fuero como lo tenemos aquí nosotros. Por lo tanto, también entendemos que, no se vé una intencionalidad de cambio bajo ningún concepto para poder apoyar algo, que aunque está realmente con pocas variaciones, podía ser asumible sin mayor problema, pero se vé que la intencionalidad sigue siendo la misma.

En el punto 4º no he sabido cogerlo exactamente, lo que ha presentado el PNV como posible añadido de más, porque en un momento así y al hacer la traducción, pues no sé exactamente como quedaría. Pero aquí se habla de tener voz y capacidad de decisión. Nosotros llevamos aquí en Euskadi treinta años decidiendo libremente algunos más que otros, pero bueno, libremente y no creo que exista la imposibilidad de decisión, sino que la capacidad de decisión la tenemos. Por lo tanto, en base a todo eso si ésta es la redacción y lo que tiene que quedar, pues nosotros desde luego nos vamos a ver obligados a votar en contra de la moción.

HERRITARRAK: Faxista,

ALKATE-LEHENDAKARIA: Faborez, ideia guztiak errespetuz entzungo ditugu. Andoni ANV taldea.

ANDONI ETXANIZ OSA JNA: Nik lehendabizi eskerrak eman Emilianori, bere jakinduriarekin, oraingoan ere argitu dizkigulako gatazka honek dituen korapilu guztiak. Eta nola ez, ez dakit zertan gauden hemen, ez dakit zertarako batzuek diren ezkertiarak eta besteak eskuindarrak, erantzun guztiak berak ditu eta berari esker dakigu nor den, zeren arduradun eta zer prezio ordaindu behar duen, eta jakin badakigu hemen Euskal Herriarik ez dagoela eta ez dela izango inoiz, beraz debate politikoa, zertarako?

Giltza beti berdinen eskuetan baldin badago, zertarako esan hemen eskubideak edo demokraziarik dagoela? Hemen dagoena da, alderdi batek besteari existitzea bera ere, ukatu egiten diola eta existitzea bera ukatzen dionean, zer nolako eskubideak opa diezaizkioke? Niri behintzat lekuz kanpo uzten didate, horrelako argumentazioak.

Badirudi mundu ezberdinetan bizi garela, aste honetan ikusi berri ditugun, kontuak legearekin zer ikusteko edo ikusirik gutxi dute. Erabaki politikoak daude honen atzean. Alderdi sozialistak nabarmen bere kanpaina gure

bizkarrera egin nahi du, Ebrotik behera bozkak irabazi ez, ez galtzearekin konformatzen dira, eta horretarako dituzten erramienta guztiak erabiltzen dituzte: Audientzia Nazionalak, poliziak, montaje polizialak, atxilotetak, alderdien ilegazioak.

Aurten ehun eta hamar atxilotu dituzte, ehun eta hamar pertsona, benetan arriskutsuak, benetan basatiak, beroien aktibitatea publikoki egiten zutenak eta politika egiten zutenak, baino horiek ere atxilotu behar ziren, ba, PP-ren aurrean, zirko honetan erregeak beroiek direla edo nabarmentzeko.

Niri behintzat gogo gutxi geratzen zait debate politikoarentzako. Ulertu nahi duenak mozio hau, ulertu dezala nahi duen bezala, baino mozio hau, bestearekin zer ikusirik ez duela esatea, egitik urruti dago. Zeren mozio hau beste mozioaren oso antzekoa da. Puntu bat gutxiago du, baino beste puntu guztiak jasotzen dira, berdin-berdin, ez dut esango, baino bueno, adostu ahal izan duguna adostu dugu eta ni behintzat, adostu ahal izanaz pozik. Nahiago hau, horrela adostu ahal izatea, nahiz eta ez izan gure mozia, baino bai guk onartzeko moduko mozio bat bada.

Dena den gaur hemen alderdi batzuk, egiten dutena edo egiten ez dutenari, garrantzi berezirik ez diogu emango ikusten dugulako ilegazioaren aurrean ere zer jarrera duten. Orain hemen mozio hau erdi onartzeko modukoa dela esatea, Bilboko irudiak ikusi eta gero ba ...

Nabarmena da, alderdien legeak, gaur egun Euskal Herrian duen eragina ez zuela izango guztiok, lege horren aurka gauden guztiok, zerbait egingo bagenu lege horren aurka. Ezin dena da legearen aurka hitzegin uneoro lege hori barbaridade judizial bat dela eta eskubide zibil eta politikoak urratzen direla, baino urraketa horiek eman ondoren beste urraketa batzuk emateko beti prest. Ez. Lege horri aurre egiteko prest, noizbait, norbait, egongo ote da herri honetan ? Noizbait herri honen eskubideak - ez ezker abertzalearen eskubideak- noizbait herri honen eskubideak, norbaitek defendatu ahal ditu hitzetik haratago, zeren hitzetik haratago tokatzen ez zaizkigun karguak hartzen ditugu, hitzetik haratago polizia kartzelan jartzen dugu, hitzak ez dute ezer ere balio, atzetik horrelako ekintzak daudenean. Besterik gabe.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Nik, PNV-k esandako hitzei jarraiki, iruditzen zait hirugarren puntuan Proiektu politiko guztiak, bide demokratiko eta baketsuak aintzateztedan puntu horretan, zuek sartzea aipatzen duzuen beste esaldi hori, dagoeneko sartuta dagoela, hor aintzatezten delako bide guztiak demokratiko eta baketsuak izan behar dutela, behin hori esan da, nik uste dut, asko eztabaidatu daitekeela gauz askori buruz, baino gaur hemen eztabaidatzeko daukaguna dela, alderdi politiko baten “suspensión de actividades” edo erderaz deitzen den hori eta horri heldu behar diogula. Hemen ez da gaur beste inongo gairik

eztabaidatzen eta bere horretan, guri iruditzen zaigu alderdi bezala eta horrela adierazi dugu bere larritasuna baduela beste gauza batzuren artean, Espaniar Konstituzioak aintzatesten dituen eskubide asko eta asko eta oinarritzko eskubide asko ere, nik usten dudalako kolokan gutxienez kolokan jartzen direla. Ezta? Eta bere horretan, bere herriari demokrata aintzatestedan edo aitortzen den horrek ba.... oinarritzko eskubide horietan gutxienez, oso delikatuak izan behar du eta eskubide horiek bermatzeko neurri zorrotzak izan behar dira, ezta?

Iruditzen zait edo iruditzen zaigu, askotan Herri honetan papalak banatuta daudela, orain dela hogeitamar urtetik, bakoitzak badakigula gure buruari eta Euskal Gatazkaren inguruan bakoitzak zer esango duen, eta zoritxarrez, ez dakit zenbat iraungo duen baina, hemen aipatzen dugun bezala, bide bakarra dudarik ez daukagu, elkarrizketa dela eta ez ideien ilegalizazioa. EAJ-PNV-ek zerbait esateko ?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA ANDREA: Oraintxe aipatu duzu badirudiela orain dela hogeitamar urte bakoitzak badakigula zein papel jokaten dugun eta bakoitzak ezagutzen ditugula geure hitzak izan ezik, gainontzekoarenak ere.

Nik berriz esan nahiko nuke, lehenago erantsi nahi izan dizkiogun hitz horiek ez direla gureak bakarrik eta hitz horiek beroiek ez dakit, baina zeharo antzeko beste batzuk, ezker abertzaleak, Anoetan egin zuen ekimen hartan, berak, esan ezezik asumitu eta defendatzeko konpromisua hartu zuela.

Eta azken finean gauzak ulertu daitezke, borondatea jarriz gero, bai, baina egia dena da ez dela berdina hasieratik biolentzia arbuiatzea, eta ez bakarrik biolentzia, baizik eta biolentziaren erabilpenaren mehatxua bera arbuiatzea, edo ustezkoz baldintza batzuk betetzen diren egunean, jarduera politiko guztiak bake bideetatik praktikan jarri ahal izango direla esatea. Eta hain zuzen nabardura hori da, guk gaur, hemen, nahiko genukeena nabarmendu. Esaten zaigu batzuek hitzak bai eta ekintzak ez. Hitzetatik haratago zertarako gauden prest. Ez da kasu honetan gure alderdiaren izena espreski aipatu, baina hori ere ulertzen dugu, eta bi aipamen egin besterik ez: alde batetik, lehenago esan dudan bezala, orain arte esku artean geneukan mozioan bertan esaten zen bezala, - eta ez da aurrengo mozioa horrelako hitzekin esku artean daukaguna Alderdi Jeltzailea iruzurtzailatzat duena eta ez zaigula batere egokia iruditzen-, ezker abertzaleak publikoki hainbat lekutan, azken boladan batez ere, aldarrikatzen duen Eusko Alderdi Jeltzailearen errudun izaera hori. Eta beste urraketa batzuk gehitzeko prest, beste zoritxarreko urraketa batzuk ere gertatu izan dira azken bolada honetan, ilegalizazioarekin zuzenean zer ikusirik ez dutenak, beste "era" batekoak esan dezakegu, eta guk dakigula udal honetara ANV-k ez du

ekarri urraketa horien aurkako moziorik, ez ANV-k ezta Udal Gobernuak ere, beraz gauza asko egon daitezke, ezta?

Ulertzen dut orduan gure eskaera ez dela ontzat ematen?

ALKATE-LEHENDAKARIA: Barkatu, turnoak izango dira aurrena Alderdi politikoek, bakoitzak bere turnoak edukiko ditu eta gero publikotik norbaitek hitzegin nahi baldin badu, eskua altxa dezala, mikrofono bat badago, gainera Pleno hauek grabatu egiten dira eta gero idatzi egin behar dira, beraz errespetuz. Emilianok du hitza.

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ: Vuelvo a reiterar que si no se quieren reconocer las cosas, pues lógicamente no se reconocen.

De todas maneras, gracias por la inteligencia que me atribuyes ó digamos que intuyes que tengo, gracias por ello.

Lo que está claro es que desde Anoeta aquí han ocurrido bastantes cosas. Si realmente se cita a la democracia y al diálogo, no podrás decir que no y no me refiero a un debate entre tú y yo sino me refiero al hecho de que estamos aquí. Esto no hubiera llegado si se hubiera utilizado solo el diálogo, para nada, no estaríamos aquí discutiendo esto. La realidad es que cuando se pone el diálogo encima de la mesa, hay que cargar con todas las consecuencias que tiene el diálogo y si con ése diálogo se podrá llegar o no llegar algún tipo de acuerdo o algún tipo de determinación es otra cosa. Pero con el diálogo encima de la mesa, sin más. Ahora mismo no estábamos discutiendo eso, para nada y los únicos que lo han roto y que han puesto encima de la mesa, cosa muy diferente a lo que es el diálogo, también sabes de sobra quienes son y no nosotros. Esto por una parte.

Por otra, nosotros como Partido no hemos detenido a nadie ni somos quienes, ni tenemos capacidad, ni intención. Así que por lo tanto, no me doy por enterado de que hemos detenido a no sé cuantos. En todo caso, son detenidos por quienes corresponde y vuelvo a repetir, si ocurre es por el hecho de lo que ocurre y no pues precisamente por utilizar el diálogo única y exclusivamente.

¿Que me siento demócrata? Por supuesto, Iñaki, por supuesto. ¿ Y que me gustaría que en el mismo plano todos nos sintiéramos lo mismo y pudiéramos llegar a acuerdos? Encantadísimo. Pero lo que no puede ser, no puede ser. La democracia es respeto de los unos a los otros y aquí siempre falta lo mismo, no me refiero en este Ayuntamiento, -que no estamos hablando del ayuntamiento en sí-, sino de lo que representa la moción, siempre el respeto se falta por lo mismo, siempre.

Lo que no puede ser es hacer alegación continuamente al diálogo y luego el respeto brillar por su ausencia. Seguir manteniendo la violencia por encima

de todo y luego pretender que sean los demás, los que dialoguen. Por supuesto, si Anoeta hubiera seguido adelante, vuelvo a reiterar que no estaríamos aquí discutiendo esto.

Y precisamente nosotros creo que desde entonces y hasta ahora hemos puesto encima de la mesa todo lo que es diálogo y todo lo que haga falta y nos hemos cargado críticas por activa y por pasiva, por un lado, por otro y por todos los lados y hemos seguido intentando por todos los medios con el diálogo encima de la mesa, sacar adelante esto y no lo hemos roto nosotros, ni ha sido por culpa nuestra. Así que el que lo ha roto y el que tiene la culpa por lo menos que reconozca y no venga aquí a decir a los demás que somos ó no somos demócratas, ó no respetamos ó dejamos de respetar. Vuelvo a repetir, que hemos respetado, que respetamos, que respetaremos y que el diálogo ha sido y será siempre nuestra única arma, y nada más, no tenemos otra, ni pretendemos tenerla y si todos utilizáramos eso, otro gallo nos cantaría, aparte de la factura que llevamos pagando por utilizar el diálogo, pero que eso no nos va hacer variar, lo seguimos utilizando porque creemos en ello como única medida.

ANDONI ETXANIZ OSA JNA: Anoetatik hona, gauza asko gertatu dira Ezker Abertzalean. Anoetatik hona egin duena da politika egitea, elkarrizketa noski izango dela giltza, baino elkarrizketa horretatik akordio politikoak etorri behar dute.

Hitzegin hitzegiteagatik, “hasta el amanecer” hementxen, hablando del “sexo de los ángeles”, ez. Hemen hitzegin behar da gauza konkretuetaz. Gaur hemen, oraindik Euskal Herria existitzen dela ere zalantzan jartzen da, naiz eta kontrakoa defendatzen dugun mahaian gauden beste guztiok, zu erre, ke erre, horretan, ari zara baina hemen frentean dituzun beste denak, Euskal Herria aintzat hartzen dute, zu zara bakarra, agian Palomarekin, hori aintzat hartzen ez duena. Ez dakit, zertarako hitzegiten dugun horrenbeste ez baldin badugu ezertxo ere ulertzeko, borondaterik eta kapazidaderik ez badago. Herriari entzun behar diogu, ez nik zuri eta zuk niri edo Alderdi Sozialistak, Ezker Abertzaleari eta Ezker Abertzaleak Alderdi Sozialistari, herriari eman behar zaio hitza, gure artean hitzegitea ondo dago, baino hitza herriari eman behar zaio eta errespetatu egin behar zaio. Eta beste zerbait ere banuen esateko.... eta joan egin zait, gero agian etorriko da.

ALKATE-LEHENDAKARIA: EAJ-k planteatzen duen esaldi horri, buruz esan, hemen aipatzen dena da, proiektu politiko guztiak bideratzeko, bide baketsu eta demokratikoak erabili behar direla, hori da, jartzen duena.

Eta beste alde batetik, Emiliano, egia da zuk aipatu duzuna eta gauzak garbi esan behar dira. Gu gure aldetik eta gure alderdiak, beti, eta horrela esan izan du eta esaten dugu, hemen edozein biolentziaren kontra gaudela, bai ETA-ren aurka, erakunde militar bat delako eta edozein erakunde militarren aurka gaudelako, ETA-ren aurka gaude eta baita beste edozein ekintza giza eskubideak mehatxatu edo bortzatzten dituen beste edozein ekintzen aurka. Gertatzen dena da, gaur hemen eztabaidatzen ari garena dela, alderdi politiko baten, ez, baizik eta bien, “Suspensión de actividades” delakoa eta itxuraz eta agian, beraren ilegalizazioa. Eta galdera da, prozesu guzti honetan zergatik aktibatzen den martxan alderdi baten ilegalizazioa, juxtu eta hain zuzen politikoki helmuga edo jomuga ilundu denean, ez? Itxura denez orain dela urtebete helmuga zegoen egoera politikoaren helmuga, bake bidez bakera iristera zen hori mundu politikoan hautsi egin da eta mundu judiziala aktibatu da eta horrekin esaten duguna da, a zer koinzidentzia, mundu politikoak eta mundu judizialak, mundu politikoa segun eta nola dihoan mundu judiziala ere hala dihoala.

Baina ez gaude ba.... herri demokratiko batean!

Botere judiziala ez da ba... independentia botere legislatibo eta exekutibotik?

Hori da, gu planteatzen ari garena, benetan oinarrizko eskubide hauetan ere bortxaketa ote dagoen, galdetzen ari gara.

Eta hori da, gure ustez, egoera honen larritasuna eta Pleno honen larritasuna eta hori da aztertzen ari garena, ez?

Eta zentzu horretan guri iruditzen zaigu eta beti esan izan dugu, egoera politikoa erabat txertatuta dagoela aurrera eramaten ari diren ekintza judizialekin eta hori Herri Demokratiko batean, ba gutxienez harrigarria dela, gutxienez harrigarria, eta gero hortikan aurrerako guztia eta guk hemen salatzen ditugunak ere salagarriak direla eta zentzu horretan iruditzen zait Anoetan, PNV-k dion bezala Anoetan, jasotako printzipio haiek, hemen jasota daudela, ez daude jasota de “pe a pa” erderaz esaten den bezala, baino bai bere filosofian jarrita daudela.

Berriz diogu Proiektu politiko guztiak gauzatzeko bideratzeko, mozio honen arabera bide demokratikoak eta baketsuak dira aurrera eramango direnak, interpretazioa esaldi horrena hori da, eta guk horregatik ematen diogu babesa mozio honi.

Baten batek beste zerbait esateko baldin badu, beste turno bat irekiko dugu eta ondoren publikotik norbaitek zerbait esan nahi baldin badu, alderdi politiko bakoitzak hitzegin ondoren, eskua altxa dezala. EAJ-PNV-k ? Ezerrez.

ANDONI ETXAIZ OSA JNA: Niri etorri zait lehen joan zaidana eta bukatu gabe geratu naizenez, lehen esan nahi nuena ondorengo zela diot:

gaur hemen berriro ere, diskurtso politikoaren sinplifikazioa muturreraino eramaten ikusi dugula.

Beti bezala onak batzuek dira eta txarrak beste batzuek dira, eta batzuek egiten dituzten gauz, ez dakit, zer gauz eta besteek dialogoa beti erabili izan dute, bueno nere galdera da:

GAL, dialogoa da?

GAL, nork aktibatu zuen GAL?, ez dakit, eh? No están en lejanas montañas, los que activaron el GAL.

Tortura, dialogoa da? Hori ere, dialogoa da?

Zortzi pikoletu gaur, epailearen aurretik pasatzera, inputatu bezala deitu dituzte torturatzeagatik.

Mahai Nazionala kartzelan sartzea, dialogoa da?

Norekin hitzegin behar duzue, interlokutore denak kartzelan sartu behar badituzue?

Nelson Mandela, está entre rejas y le han concedido el premio nobel de la Paz.

Dispersioa, dialogoa izango da hori ere, noski, nola ez. Eta dispersioa failatzen duten presoek komunikabideetan artikulak idazteagatik berriro ere urte mordoxka bat sartzea ere, dialogoa izango da.

Diskurtso debila benetan, eta diskurtso horren debilitatea, ba... politikoki zer eskeini ez dutenean, judizialki eskeintzen diote herri honi, beroien apustu bakarra da Konstituzioa eta errepresioa, ez dutelako beste eskaintza politikorik herri honentzako.

Hitzegiteko prest daudela esaten dute uneoro, baino ez dute ezertaz hitzegin nahi, ez dute eskubideetaz hitzegin nahi, ez dute errespetuaz hitzegin nahi, ez dute herri honekin hitzegin nahi. Hitzegin nahi dute Espainiako estatu bakarra eta puskaezinaren izenean eta puskaezinarentzako, eta horretarako ba... alfer-alferrik esertzea. Zoritxarrez ez du ezertarako ere balio, nik uste dut aukera egongo dela berriz ere hitzegiteko eta nahiz eta orain aukera hori urrun ikusten dugun guztiok zoritxarrez, etorriko dela berriz ere, eta elkarrizketatik etorriko da soluzioa. Baina kontenidua eta matiz politiko zerbait gehiago duen elkarrizketa batetik, sinplifikaziotik nik uste dut soluzio gutxi etorriko dela, hemen gauza ez dakit “brocha gorda” gehiegi erabiltzera ohitu garen aspaldi honetan eta gero “brocha gorda” hori beste batzuek hartzen dute eta zoritxarrez, gaur egun zer nolako koloreak ditugun ba... hortikan datoz.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Emiliano zerbait esateko baldin badaukazu ? Ezerrez. Paloma.

SRA.PALOMA HEREDERO NEGREDO: Hola buenas tardes, sólo algo para Andoni.

Andoni lamento profundamente tenerte que decir ésto, pero me parece que si para recurrir a defender, a argumentar algo tan interesante como es lo que tenemos encima de la mesa, tienes que recurrir al GAL y aquella época, me parece que has bajado demasiado el listón. Es decir, creo que desde esa época hasta ahora mismo, afortunadamente para todos, han ocurrido muchos acontecimiento en positivo.

La verdad es que me ha sorprendido, no consideraba que ibas a bajar tanto el listón. Lo siento, creo que es mucho más interesante y que además puedes hacerlo mejor.

ANDONI ETXANIZ OSA JNA: Hori izan da Emilianok esan duelako Alderdi Sozialistak, beti elkarrikezta izan duela esku artean, eta nik bakarrik gogoratu dut, Alderdi Sozialistak beti elkarrikezta ez duela esku artean izan. Gehiago esango nuke, inoiz, ez du esku artean benetako elkarriketarik eduki, neure ustez behintzat.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Norbaitek publikotik zerbait esan nahi baldin badu ? bai Xabier.

XABIER: Bai, ongi etorri denok. Tema hau garrantzitsua iruditzen zaidak eta zerbait esan beharra zeukat nik ere herritar bat bezala. Ni gogoratzen nauk, Franco hil zen garai hartan, beheko plazan aurkitu ginela zenbait herritar, eta denok ahots batean hitzegiten genuela eta esaten genuela, bueno etsai haundiena hil duk eta hemendik aurrera, guk geure herria geure bidetik eramango diagu, gogoratzen nauk. Jendeak hasiera batean ere hori nahi zian eta hori pentsatu izan zian. Gaur, hainbeste urte pasa eta gero gauza berdinekin gaudek. Bi postura zeudek gauzak aurrera eramateko. Independentzia, noski nahi dudala nik ere independentzia, gazte-gaztetatik gainera, jaio nintzenetik eta askatasuna, beti, dialogoarekin eta hik aitutzen duken hainbeste dialogo eta hainbeste hartu-eman herriarekin, de acuerdo, baino a ber... zeintzuk zeinena joan behar dugu, guk zuengana edo zuek guregana, nola erabakiko genuke?

Dialogoa, por supuesto, baino ikusten ari nauk, martxa honetan ez gabiltzala bide onean. Gero erabakitzeke unean zuen alderdia debekatzea, eta kartzela eramatea ez noski.

Zein ez dago horren kontra? Zein euskaldun ez dago horren, kontra?

Nik uste diat, hor ere ados gaudela, ez gaudena duk postura batzuk erabakitzea momentu batzuetan, gaur, adibidez, hemen bezala edo beste

leku askotan, batzuek armen indarrarekin eta besteok demokratikoki, ez duk ederra!

Eta baita ere ez negok, ados, hik aipatu duken moduan hainbeste bortxaketa eta hainbeste kartzeletako torturak eta beste zenbait gauza horiek. Horren aurka gaudek denok, guztiok.

Zer egin behar da?

Nola joan behar da askatasun baten bila, bai zuek eta bai gu? Hori duk erabaki behar dena.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Beste norbaitek zerbait esatekorik badauka ? Ez dagoenez, Andoni.

ANDONI ETXANIZ OSA JNA: Eskerrikasko parte hartzeagatik, a ber... zer esan behar nion nik gizon honi ...

Egia da, ados gaudela gauza askotan, egia da denok kontra gaudela gauza askoren kontra gaudela, baino egia da, baita ere kontra gauden horren aurrean, gaur arte behintzat, jende gutxik eta alderdi gutxik ezer egin dutela.

Bilbon, poliziaz kaleak bete, udaletxeetan tokatzen ez zaizkien zinegotziak hartu, Diputazioetan berdin. Eta orain ere, honen aurrean herriari egiten dioten eskaintza da, lasai egon, guk badaukagu gure proiektu politikoa, ez bota fregaderara zuen bozka. Hori da esaten zaiona herriari, ¡lasai egon! Ez urduritu, guk eramango dugu herri hau justizira gure proiektuarekin. Ez, hemen ez da gure proiektua defendatu behar, hemen proiektu guztiak defendatu behar dira. Hemen askatasun eta aukera guztiak defendatu behar dira ez norberarena defendatzeko aprobetxatu besteak, orduan eta zapalduago daudenean. Eta hortan batzuk, zoritxarrez, azkenengo urte hauetan artistak direla, ikusten ari gara, beste kontu batzuk ikustea gustatuko litzaiguke, baino ezin dugu esan alderantizkorik. Aralarrek ere esan zuen, herri bezala erantzun bat artikulatu behar dugula.

Gaur entzun dut ez dutela parte hartuko greba orokorrean eta hemen beti azkenean bakoitzak bere buruari begiratzen jarraitzen dion bitartean herria umerzurtz egongo da. Eta nik, uste dut alderdiak herriaren eskubideei begiratzen hasten garenean, eta herri bezala erantzuten hasten garenean orduan etorriko direla soluzioak. Eta ez bakoitzak bere kalkul elektoralistekin bere mezuak ondo neurtu eta komeni zaizkionak bere buruari bakarrik horietxek bota. Hemen ez dakit, batzuei eskubideak baino gehiago, negozioak interesatzen zaizkie, badakit oso demagogoa naizela, baina, horrela pentsatzen dut.

ALKATE-LEHENDAKARIA: PNV.

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA ANDREA: Barkatu Iñaki, lehenago aipatu duzunaren ildotik, gure ustez bi kontu desberdin dira, gatazka politikoa alde batetik, eta normalizazio ezaren eta bakerik ezaren gatazka bestetik.

Bestalde, Andoni, Xabierrek esan duen bezala, adostasunak badaude asmoak egon beharko lukete, amankomunak izan beharko liratekeenak, kalkulo elektoralistak eta horrelakoak aipatu dituzu, Aralar aipatu duzu, baita, eta neri okurritzen zaidan galdera da: zergatik, beti zaudete zuek, bakarrik?

Zergatik?, kalkulo elektoralista horietan ulertu behar dugu? Oker bagaude zuzendu, Eusko Alderdi Jeltzailea sartzen dela, eta eman dezagun Eusko Alkartasuna, ez. Zergatik, gainontzeko guztiak beraiena defenditzen dute? Bakoitzak berea noski, horretarako dira alderdiak, alderdi desberdinak izanik, alderdi bakoitzaren zera... defendatzen dutelako. Horretaz aparte saiatu beharko ginatekeena da benetan funtsean daukagun amankomunitate hori defendatzen, bilatzen akaso aurrena, eta gero defendatzen, eta horretarako bai gatazka politikoa nabarmen aurrean eduki baina baita ere normalkuntzarik o normalizazio ezak inplikatzeko digun gatazka ere bistatik galdu gabe.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Emiliano.

Sr. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ : Bueno dos cositas muy pequeñas.

En principio, que estamos totalmente de acuerdo con lo comentado por la persona que ha hablado en el público, por supuesto, y si todo fuese así, encantados.

En cálculos electorales, pues la verdad, si tuvieramos hecho un cálculo electoral los cuatro años que hemos tenido que soportar de gobierno, al PP y a otros muchos, en las condiciones que lo hemos tenido que soportar, hubiera sido mucho más fácil, para nosotros, cortar desde un principio y mantener otro tipo de política que a estas alturas seguramente que si nos separan, 2, 3, 4, 20 puntos los que sean, que hasta el día 9 no lo va a saber nadie, por muchas encuestas que haya cuando abramos los votos, seguro, que la situación nuestra políticamente sería muy diferente y mucho más favorable que la que tenemos ahora. De cálculos electorales, no, de intentar por todos los medios a nuestro alcance de resolver el tema, sí, y lo seguiremos haciendo, si en un futuro tenemos la oportunidad de hacerlo, no

cabe la menor duda, o sea, en las condiciones idóneas para ello, que en este momento desde luego, no se dan.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Normalkuntza politiko eta bakea, noski gure alderdiak beti defenditu ditu. Nazio-eztabaidagunean ere bai, eta Nazio-eztabaidagunean gu bagaude baina zuek ez, hori konklusioetako bat izan zen eta aurrera jarraitzen dugu.

Yo no he dicho por cálculo político, eh? Ah. No, no sabía, porque yo cuando antes me refería a que cuando la situación política cambiara, por la situación política en general, no por cálculos políticos.

Eta besterik gabe, berriz aipatu, noski normalizazio politikoa eta gatazka ezberdinak direla, hori badakigu, baina hala eta guztiz ere, garrantzitsuena amankomunean duguna amankomunean jartzen saiatu behar garela, guztion aldetik.

Badakit Euskal Parlamentuan EHAK aurkeztu zuenean, ez zegoela inongo arazorik, ez EAJ-ren aldetik, ez EA-ren aldetik, ez Ezker Batuaren aldetik mozio hura bozkatzeko. Eta honetan ere ez dut uste. ANV-k, bai EAk, bere esfortzua egin behar izan dute amankomuneko zerbaitetara iristeko eta ez zait iruditzen mozio honetatik EAJ, ez dut esaten beste alderdi bat, baina EAJ urrun dagoenik, besterik gabe, Andoni.

ANDONI ETXANIZ OSA JNA: Bai galdera interesgarria benetan, zergatik beti bakarrik ezker abertzalea? Erantzuna seguraski desberdina nori egiten diozunaren arabera, baino nik behintzat argi daukat zein den erantzuna, zergatik beti estatuak golpatzen du ezker abertzalea? Ezker abertzalea delako bakarrik herri honi aukera guztietan edo aukera guztiak barne direla, proiektu guztiak egikaritu eta defendatu behar direla eskatzen duena. Beste batzuk, beste akordio batzuetara “a la catalana, a la andaluza”, ailegatzeko prest daudela badakitelako, eta beste batzuk ba.. bueno jaten ematen duen eskuari ba... hortzadarik emango ez diotela badakitelako.

Hemen estatuaren orden konstituzionala bermatzeko daude batzuk, eta guk aldiz, orden konstituzional hori anti demokratikoa dela salatzen dugu eta ordena herritarra behar duela defendatzen dugu, eta nola guk hori egiten degun, Estatuak horrela ordaintzen digu.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Norbaitek zerbait gehiago esatekorik badauka edo bozkatzera pasatuko gara? Bozkatzera pasatuko gara. Besterik gabe, eskerrikasko hona etorri zareten denoi.

ERABAKI ZATIA

MOZIOA: EAE-ANVren
ILEGALIZAZIOA
ANV, Zumaiaiko udaltaldeak aurkeztua.-

Aldeko botuak: 8 (3 EAJ, 3 ANV, eta 2 EA)

Aurkako botuak : 2 (PSOE)
Abstentzioak: 0

ERABAKI DA:

EAE-ANVren ILEGALIZAZIOA-ari burzko, Zumaiaiko ANV udaltaldeak aurkeztua onartzea.

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez Alkate-Lehendakariak bilera amaitutzat ematen du arratsaldeko zortzirik eta hamabost minutu direnean eta nik Idazkariak fede ematen dut.

ALKATEAREN O.E

PARTE RESOLUTIVA

MOCION: ILEGALIZACION ANV,
presentada por el grupo municipal de ANV de Zumaia.

Votos a favor: 8 (3 PNV, 3 ANV, y 2 EA)

Votos en contra: 2 (PSOE)
Abstenciones: 0

SE ACUERDA:

Aprobar la moción sobre la ilegalización de EAE-ANV, presentada por el grupo municipal de ANV de Zumaia.

No habiendo más temas que tratar, el Alcalde-Presidente da por finalizada la sesión cuando son las veinte horas y quince minutos , y yo la Secretaria doy fe.

IDAZKARIAK